



## ERTZAINZAK ETA UDALTZAINGOEK OSASUN-ALARMAN APLIKATZEKO IRIZPIDEAK

Data: 2021eko otsailak 14

Berrikuspena: 06

### SARRERA

Otsailaren 13an *Lehendakariaren 07/2021 Dekretua* argitaratu da, otsailaren 12koa, abenduaren 10eko 44/2020 Dekretuaren laugarren aldaketa, alarma-egoeraren adierazpenaren eremuan testu bakar batean batzeko eta prebentzio-neurri espezifikoak eguneratzeko, egoera epidemiologikoaren bilakaeraren ondorioz eta SARS-CoV-2k eragindako infekzioen hedapena geldiarazteko.

**Dekretua 2021eko otsailaren 15eko 00:00etan sartuko da indarrean.**

Honakoak dira indarrean dagoen dekretuan jasotako **neurri aipagarri eta eguneratuak**:

### **BAT. Pertsonen gaueko zirkulazio-askatasuna mugatzea**

- Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak adierazitako alarma-egoera indarrean dagoen bitartean Euskal Autonomia Erkidegoan gaueko ordutegian zirkulatzeko askatasunaren mugatzea mantenduko da, **22:00etan hasi** eta muga hori **06:00etan** amaituko da.
- Aurreko paragrafoetan ezarritako ordutegi-muga eta kasuak alde batera utzita, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan aurreikusitako jarduerak egiteko **bakarrik zirkulatu ahal izango dute** pertsonak erabilera publikoko bide edo espazioetatik:
  - a) Sendagaiak, osasun-produktuak eta premia biziko beste ondasun batzuk erostea.
  - b) Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetara joatea.
  - c) Albaitaritzako arreta-zentroetara joatea urgentziazko arrazoiengatik.
  - d) Lan-, lanbide-, enpresa-, erakunde- edo lege-betebeharrak betetzea.
  - e) Ohiko bizilekura itzultzea, atal honetan aurreikusitako jarduera batzuk egin ondoren.
  - f) Adinekoei, adingabeei, mendekotasun-egoeran daudenei, desgaitasuna duten pertsonen edo bereziki ahulak diren pertsonen laguntzea eta hauek zaintzea.
  - g) Ezinbesteko kausagatik edo premia-egoeragatik.
  - h) Antzeko beste edozein jarduera, behar bezala egiaztatuta badago.
  - i) Aurreko paragrafoetan aurreikusitako jarduerak egiteko beharrezkoa denean gasolina-zerbitzuek erregaia hartzea.



## BI. Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean eta norberak bizilekua duen udalerrian pertsonen sarrera eta irteera mugatzea

- Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak aitortutako alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, Euskal Autonomia Erkidegoko lurraldean pertsonak sartzeko eta ateratzeko murrizketari eutsiko zaio.
- Nolanahi ere, urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1 artikuluan aurreikusitako arrazoiren batengatik egindako joan-etorriak baimenduko dira, behar bezala justifikatuta badaude:
  - a) Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduetara joatea.
  - b) Lan-, lanbide-, enpresa-, erakunde- edo lege-betebeharrak betetzea.
  - c) Unibertsitateetara, ikastetxeetara eta hezkuntza-zentroetara joatea, haurhezkuntzako eskolak barne.
  - d) Ohiko bizilekura edo familia-bizilekura itzultzea.
  - e) Adinekoei, adingabeei, mendekotasun-egoeran daudenei, desgaitasuna duten pertsoneri edo bereziki ahulak diren pertsoneri laguntzea eta hauek zaintzea.
  - f) Mugakide diren lurraldeetako finantza- eta aseguru-erakundeetara edo gasolina-zerbitzuguneetara joatea.
  - g) Organo publiko, judizial edo notarialetan egin beharreko premiazko betebeharrak betetzea.
  - h) Baimenak eta dokumentazio ofiziala berritzea, bai eta beste administrazioizapide atzeraezin batzuk egitea ere.
  - i) Azterketa edo proba ofizial atzeraezinak egitea.
  - j) Ezinbesteko kausagatik edo premia-egoeragatik.
  - k) Antzeko beste edozein jarduera, behar bezala egiaztatuta badago.
- **Igarotzen ari den zirkulazioari** dagokionez, ez da inolako murrizketarik egongo artikulua honetan aurreikusitako mugak aplikatu behar diren lurralde-eremuetatik ari direnentzako.
- Mugatu egiten da **bizilekua duten udalerriko barruti** bakoitzeko pertsonen sarrera eta irteera, artikulua honetan jasotako salbuespen orokorrekina edo partikularrekina. Nolanahi ere, **mugakide diren** eta ohiko joan-etorriak dituzten udalerrien arteko mugikortasuna baimentzen da, lurralde historikoa edozein dela ere, **gizarte-, ekonomia- eta kirol-jarduerak edo aire zabaleko jarduera fisikoa egiteko**.
- Bestalde, bizilekuaz bestelako Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerrira batera mugitzea baimenduta dago, baita mugakideak ez direnetara ere, **lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean** ari diren taldeen entrenamenduetarako eta kirol-lehiaketetarako, azken 14 egunetako COVID-19 kasuen intzidentzia-tasa metatua edozein dela ere.



- Azkenik, bizilekua dagoen udalerrria ez den beste udalerrri batera mugitu ahal izango da, mugakidea ez bada ere, **kirol federatuko lehiaketetarako eta entrenamenduetarako, eskola-kiroleko entrenamenduetarako, bai eta gimnasioetan, kirol-elkarteetan edo kiroldegietan programatutako ikastaroetarako edo jardueretarako** ere, betiere, kasu horietan guztietan, jatorrizko udalerrrian zein helmugako udalerrrian COVID-19aren kasu positiboen azken 14 egunetako intzidentzia-tasa metatua 100.000 biztanleko 500 baino txikiagoa bada.
- **Aurreko mugen ondorioetarako, interesdunak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena izan daiteke egiaztatzeko bidea, bertan adierazi behar du, bere erantzukizunpean betetzen dituela dekretu honetan mugikortasun-mugaren salbuespenak justifikatzeko ezarritako betekizunak.** Lekualdaketaren jatorriari, xedeari eta arrazoiari dagokienez egiaztatu nahi diren baldintzak zehaztu beharko dira adierazpen horretan, bai eta bisitatzeko den senide edo hurbileko pertsonarekin harremanetan jartzeko datuak ere. Erantzukizunpeko adierazpenean jasotako edozein datu edo informazio zehatza ez bada edo faltsua bada, ezin izango da lekualdaketarekin jarraitu, dagozkion erantzukizunak alde batera utzi gabe. Dokumentu honen eranskinean, erantzukizunpeko adierazpenaren eredu bat eskaintzen da.

### HIRU. Pertsona-taldeak espazio publiko eta pribatuetan egoteko muga

- Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuak adierazitako alarma-egoera indarrean dagoen bitartean, eutsi egingo zaio pertsona-taldeen erabilera publikoko espazioetan (itxiak nahiz aire zabalekoak) eta erabilera pribatuko espazioetan egoteko duten mugari, **ezin da lau pertsonako kopurua gainditu, bizikideak badira salbu**, eta jendearentzeko irekiak dauden bulego, instalazio eta establezimenduei, bai eta adingabe edo mendekotasun-egoeran daudenei dagokienez ezartzen diren salbuespenei kalterik egin gabe.
- Urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 7.4 artikuluan ezarritakoaren arabera, artikulua honetan aurreikusitako mugaren barruan ez dira sartuko lan-, hezkuntza- eta erakunde-jarduerak, ez eta araudi aplikagarrian berariazko neurriak ezartzen direnak ere.

### LEHENDAKARIAREN 44/2020 DEKRETUAREN ERANSKIN EGUNERATUAREN LABURPENA

#### Maskarak nahitaez erabili behar dira

Nahitaez erabili behar dute maskara sei urtetik gorako pertsonak, pertsonen arteko distantzia edozein dela ere, bai bide publikoan eta aire zabaleko espazioetan daudenean, bai



erabilera publikoko espazio itxietan daudenean edo jendearentzat irekita daudenean, eta espazio berean beste pertsona batzuekin elkartu ahal direnean.

Lantokietan nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea. Betebehar hori ez da eskatuko, baldin eta, lan-tipologia edo -baldintzak kontuan hartuta, osasun-zerbitzuek ez erabiltzea gomendatzen badute. Nolanahi ere, 1,5 metroko segurtasun-distantzia gorde beharko da.

Maskara erabiltzetik salbuetsita dauden pertsonen kasuan, ekainaren 9ko 21/2020 Legegintzako Errege Dekretuaren 6.2 artikulua adierazitako kasuetan izan ezik, maskarak erabiltzearen salbuespena ziurtagiri mediko ofizialaren bidez egiaztatu beharko da.

Ostalaritza- eta jatetxe-establezimendu eta zerbitzuetan, salbuespen gisa irekita daudenak, maskara erabiltzeko betebehar hori elikagaiak edo edariak hartzen diren unean bakarrik baztertzen da. Bestela, maskara erabili egin beharko da.

Maskara behar bezala erabili behar da; hau da, maskarak sudur-trenkadaren zati batetik kokotseraino (kokotsa barne) estali behar du.

Establezimendu, espazio edo lokalen titularrek bermatu beharko dute betebehar hori betetzen dela.

#### **Eska daitekeen higie-ne eta prebentzio-neurria**

Ezin izango da bide publikoan edo aire zabaleko guneetan erre, baldin eta ezin bada gutxienez 2 metroko pertsonarteko gutxieneko distantzia errespetatu. Muga hori tabakoa inhalatzeko veste edozein gailu erabiltzeko ere aplikatuko da, hala nola zigarro elektronikoak, "vapers" ak, ur-pipak, katximbak edo antzekoak.

#### **Merkataritza-establezimenduak, instalazioak eta lokalak**

Merkataritza-gune guztiek, erregaiak txikizka banatzeko zerbitzuguneek izan ezik, dagokien araudiaren arabera **itxi beharko dute**, eta, nolahi ere, **gehienez ere 21:00etan**. Farmaziek beren ordutegi-erregimenari eutsiko diote.

Establezimenduek, instalazioek eta lokalak **jendurrean jarri beharko dute gehieneko edukiera**, langileak barne, eta barnean edukiera hori eta pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatzen direla, eta edukiera zenbatzeko eta kontrolatzeko prozedurak ezarri beharko dituzte, edukiera hori inoiz ere gainditu ez dadin. Maskara erabiltzea behar-beharrezkoa da barnealdean.

**Debekatuta dago mota guztietako establezimenduetan alkohola saltzea 21:00etatik 08:00etara bitarteko ordutegian. Debekatuta dago alkohola bide publikoan kontsumitzea. 150 metro koadro baino gehiagoko merkataritza-establezimenduek, edukieraren ehuneko 40 baimendu beharko dute gehienez.** Merkataritza-guneetan edukiera hori bera aplikatuko da solairu eta saltoki bakoitzean, bai eta eremu komunetan ere, merkataritza-azalera edozein dela ere.

Merkataritza-guneetako edo -parkeetako arduradunek neurri nahikoak jarriko dituzte muga hori betearazteko. Debekatuta dago jolaslekuak haurrentzako gune edo atsedeneku gisa erabiltzea, eta itxita egon beharko dute.



Merkataritza-instalazioetan kokatutako ostalaritza- edo jatetxe-establezimenduek mota horietarako negoziotarako xedatutakoa bete beharko dute.

Merkatal-gunetan ez dauden **150 metro koadro** arteko azalera duten establezimendu, instalazio eta txikizkako merkataritza-lokalek edukieraren ehuneko **60ko** edukiera izan beharko dute gehienez.

Establezimendu, instalazio eta merkataritza-lokaletan, ezin izango da eremu komunik okupatu pertsonen joan-etorria ez den beste erabilera baterako.

### Beilatokiak eta ehorzketak

Beilatokiak mota guztietako instalazioetan egin ahal izango dira, publiko zein pribatuetan, behar bezala gaituta, **gehienez ere 30 pertsona** aire zabaleko espazioetan eta **6 pertsona espazio itxietan**, bizikideak izan edo ez. Bertaratutakoen kopurua txikiagoa bada, ezin izango da baimendutako edukieraren ehuneko 50 gainditu.

Hildakoaren ehorzketarako edo erretzeko agurrerako segizioan **gehienez 30 pertsonek** parte hartu ahal izango dute, betiere eremu irekian egiten bada. Ekitaldia leku itxian egiten bada, **10 pertsona izango dira gehienez**, eta pertsonen arteko segurtasun-tarteari eutsiko zaio beti.

### Gurtzarako lekuak

Kultu-aretoetara joateak ezin izango du edukieraren ehuneko 35 gainditu, eta, nolana ere, erabiltzaileen arteko 1,5 metroko distantzia bete beharko da. Gehieneko edukiera gurtzara bideratutako espazioko leku publikoan argitaratu beharko da.

### Merkatuak

Bide publikoan, aire zabalean jarduten duten merkatuen kasuan edo sedentarioa ez den salmentan, merkatu txiki gisa ezagutzen direnak, ezin izango dira ohiko edo baimendutako postuen ehuneko 50 baino gehiago izan; elkarren ondoko postuen artean gutxienez 1,5 metroko tartea egon beharko da, eta bezeroen joan-etorria mugatu beharko da, pertsonen arteko segurtasun-distantziari eusten zaiola bermatzeko. Maskara nahitaez erabili beharko da, eta pertsonen arteko segurtasundistantzia 1,5 metrokoa izango da.

### Euskaltegiak, akademiak, autoeskolak, eskolak eta aratu gabeko prestakuntza-zentroak

Euskaltegietan, akademietan, autoeskoletan, eskoletan eta aratu gabeko prestakuntzazentroetan, publiko zein pribatuetan, egiten den jarduera aurrez aurre eman ahal izango da, **gehienez ere 25 pertsonarekin**. Instalazioetan pertsonen arteko segurtasun-tartea mantentzeko beharrezko neurriak ezarri beharko dira. Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-tartea 1,5 metrokoa izan.

### Ostalaritza, jatetxeak, txokoak eta elkarte gastronomikoak

Ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduak eta -zerbitzuak jendearentzat berriro ireki ahal izango dira, honako arau hauen arabera:

5.000 biztanletik gorako udalerrietan, berriz irekitzeko azken 14 egunetan Covid-19 kasu positiboaren intzidentzia-tasa metatua, 100.000 biztanleko 500 baino gutxiago izan beharko



da, eta establezimenduak itxita egon beharko dira aipatutako tasa hori berdina edo handiagoa bada. Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendariaren ebazpen bidez, aste bakoitzeko astelehen eta ostegunetan zabalduko da Euskadiko udalerrien Tasa zerrenda, eta erreferentzia hori eraginkorra izango da hurrengo egunetik aurrera establezimenduak irekitzeko edo ixteko.

5.000 biztanletik beherako udalerrietan, tokiko egoera epidemiologikoak edo kutsatze-agerraldiek hala eskatzen dutenean, Osasun Sailak bidezko neurriak hartuko ditu establezimenduak ixteko.

Ostalaritzako eta jatetxe establezimendu guztiak, zerbitzuguneetako zerbitzuak izan ezik, **gehienez ere 20:00etan itxi beharko dira, eta ezingo dira 06:00ak baino lehen ireki.**

Hitzordua hartuta establezimenduan **eskaera jasotzeak 21:00ak** arte egin ahal izango dira eta, edonola ere, itxita egon beharko dira beste edozein zerbitzu publikorako. **Etxez etxeko banaketa 22:00ak** arte egin ahal izango da.

**Zerbitzuguneetan** dauden ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuak **irekita** egon ahal izango dira **20:00ak eta 06:00ak bitartean**, iragaitzazko erabiltzaileentzat bakarrik.

**Txokoak, elkarte gastronomikoak, lonjak eta antzekoak itxita egongo dira.** Berriz irekitzeko gaituta dauden ostalaritza- eta jatetxe-establezimenduek **aire zabaleko terrazetan eskaini ahal izango dute zerbitzua, eta barruan gehieneko edukieraren ehuneko berrogeita hamar izango dute erabilgarri.** Nolanahi ere, **mahai desberdinetako aulkien artean gutxienez metro eta erdiko pertsonen arteko distantzia dagoela ziurtatu beharko da.** Mahai bakoitzeko bezero-taldeek ezin izango dute sei baino gehiago izan. Lau lagunentzako prestatutako mahaietan lau bezero bakarrik bildu ahal izango dira, eta bi mahai batu ahal izango dira **gehienez sei laguneko talde** baterako.

Berriaz gomendatzen da establezimendu barruan telebistaz igortzen diren kirol-ekitaldiak kolektiboki ez ikustea.

**Debekatuta dago barran edo zutik kontsumitzea, bai barruan, bai kanpoan, erabiltzaileek mahaian eserita kontsumitu beharko dute.** Berriaz gomendatzen establezimendu horietako terrazetan eta inguruetan ez erretzea.

Ostalaritzako eta jatetxeetako zerbitzua ematerakoan, ahalik eta intentsitate handienarekin egin beharko dira higiene- eta prebentzio-neurriak.

**Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da etengabe, elikagaiak edo edariak hartzen direnean izan ezik.**

### **Kultura-jarduerak eta -ikuskizunak**

Jarduera edo ekitaldi kultural edo sozialik ezingo da **21:00ak** baino beranduago **amaitu.**

Bertan behera geratuko dira musika- eta ahots-izaerako edo dantza-izaerako entsegu eta emanaldi kolektibo ez-profesionalak, musikako **ikasketa arautuen edo baliokideen kasuan** izan ezik. Debekatuta dago gozokiak, freskagarriak edo antzekoak saltzea eta kontsumitzea horrelako jarduerekin lotutako instalazioetan.



Kultura-ikuskizunak egin ahal izango dira publikoarekin instalazio propioetan edo kirol gune itxietan, edo beste eraikin mota batzuetan, gehienez ere ehuneko 50eko edukierarekin, eta gehienez ere **400 pertsonarekin**. Instalazioetan pertsonen arteko segurtasun-tartea mantentzeko beharrezko neurriak ezarri beharko dira, edo, halakorik ezean, babes fisikorako neurri alternatiboak erabiliko dira.

Aire zabaleko kultura-jarduerak eta -ikuskizunak egitea baimentzen da, baimendutako edukieraren % 50eko gehieneko edukierarekin, eta **gehienez ere 600 pertsona**.

Maskara nahitaez erabili beharko da.

**Dantza-talde ez-profesionalen entseguei berrekitea baimentzen da, eta, nolahi ere, zorrotz errespetatu beharko dira pertsonen arteko segurtasun distantzia mantentzeko prebentzio-baldintzak, maskara eta kontaktu fisikorik gabeko sei pertsonako taldeak.**

### **Kirol-instalazioak eta kirol-lehiaketak, -ekitaldiak eta -ikuskizunak / Aire zabaleko jarduera fisikoak / Igerilekuak**

Edozein kirol-jardueratan, **nahitaezkoa izango da maskara erabiltzea. Eremu naturaletan, hirigune periferikoetan (oinezkorik gabe), igerilekuetan, jarduera fisiko handiko aparteko uneetan kanpoko espazioetan bakarrik eta lehiaketetan soilik baimenduko da maskara ez erabiltzea.**

Azken 14 egunetan Covid-19 kasu positiboan **INTZIDENTZIA-TASA METUATUA** 100.000 biztanleko **500 BAINO TXIKIAGO DUTEN UDALERRIETAN**, kirol-jarduera honako arau hauen arabera garatu ahal izango da:

- Federatu gabeko kirol-jarduera fisikoa bakarka edo taldeka egin ahal izango da aire zabalean, kontaktu fisikorik gabe, eta aldi berean gehienez ere 6 pertsonako taldeetan.
- Lehiaketa profesionalean eta federatua murgilduta dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak egin ahal izango dira. Federazio bakoitzari bere eremuan, eta, hala badagokie, lehiaketa bakoitzaren ardura duten erakundeei, prebentzio-neurriak eta -protokoloak zorrotz betetzen direla zaintzea dagokie.
- Eskola-kiroleko entrenamenduei berrekin ahal izango zaie, eta gehienez sei pertsonako taldeetan antolatu beharko dira, osaera aldatu gabe eta aldagelak erabili gabe.
- Entrenamenduetan, joan-etorrietan eta taldeko kirolak egin aurreko eta ondorengo uneetan, segurtasuneko pertsonen arteko 1,5 metroko distantzia, sei pertsonako taldeak eta maskara erabiltzeko oinarriko prebentzio-neurriak gordeko dira.
- **Kirol-instalazioetan, igerilekuak barne**, baimendutako gehieneko edukiera baimendutako edukieraren **%50ekoa** izango da. Kirola bakarka edo taldeka egin ahal izango da, gehienez 6 pertsonako taldeetan. Taldeka ematen diren saioetan, gehienez 6 lagunek parte hartu ahal izango dute talde bakoitzean, eta ematen den espazioan ezarritako gehieneko edukiera errespetatuko da.
- Gehieneko edukieraren ehuneko 30eko okupazioarekin erabili ahal izango dira aldagelak. Halaber, dutxak erabili ahal izango dira, baldin eta banaka erabiltzeko badira. Maskara nahitaez erabili beharko da, dutxatzeko unean izan ezik, eta une oro errespetatuko da erabiltzaileen arteko segurtasun-distantzia. Aldagelak etengabe aireztatu beharko dira





erabiltzen diren bitartean, bai eta ireki aurretik eta itxi ondoren ere. Aireztapena mekanikoa bada, kanpoko airearen sarrera maximizatu beharko da eta airearen birzirkulazioa saihestu. – Debekatuta dago jendeak kirol-ekitaldietara joatea.

Azken 14 egunetan Covid-19 kasu positiboen **INTZIDENTZIA-TASA METATUA** 100.000 biztanleko **500 EDO GEHIAGO** duten udalerrietan, bertan behera geratuko da taldeko edozein kirol-jarduera mota, bai entrenamenduan, bai lehiaketan. Debeku honetatik at gelditzen dira lehiaketa profesionalean edo erdi-profesionalean murgilduta dauden taldeen entrenamenduak eta kirol-lehiaketak; gimnasioetan, kirol-klubetan edo kiroldegietan programatutako ikastaroak edo jarduerak; eta aire zabalean egiten diren jarduerak fisikoak eta kirol-jarduera, gehienez sei pertsonako taldeetan.

Astero **Osasun Sailaren webgunean** (<https://www.euskadi.eus>), astelehenetan eta ostegunetan, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpen bat zabalduko da, udalerrietako tasen zerrendarekin. Erreferentzia hau hurrengo egunetik aurrera izango da eraginkorra aurreikusitako ondorioetarako.

### Joko eta apustu-erakundeak eta lokalak

Azken 14 egunetan Covid-19 kasu positiboen **intzidentzia-tasa metatua** 100.000 biztanleko **500 baino txikiagoa duten udalerrietan**, joko- eta apustu-erakundeak **berriz irekiko** dira, gehienez ere **ehuneko berrogeita hamarreko** edukierarekin. Joko- eta apustu-jarduerak banaka egin beharko dira, eta pertsonak eserita egon beharko dute.

Taldeek ezingo dute **sei pertsona** baino gehiago izan. Jokalarien arteko 1,5 metroko pertsonen arteko distantzia gorde beharko da. Joko-posizio bateko parte-hartzaile-aldaketa bakoitzean, erabilitako espazioaren garbitasuna eta objekturik trukatzeko ez dela bermatu beharko da.

Erekin horiek **gehienez ere 20:00etan itxi** beharko dute, bezeroen hustea barne, eta ezingo dira 06:00ak baino lehen jendearentzat ireki.

### Lurreko garraioa

EAEko hiru lurralde historikoetako garraio publikoak, edozein motatakoak eta lurralde bakoitzeko barne eremukoak, **gehienez 23:00etan irten beharko** dute.

### Ehiza- eta arrantza-jarduera

Ehiza-jarduera baimenduta dago modalitate guztietan, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatzen bada. Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-tartea 1,5 metrokoa izan.

Baimenduta dago ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza, modalitate guztietan, betiere pertsonen arteko segurtasun-distantzia errespetatzen bada. Maskara nahitaez erabili beharko da, nahiz eta pertsonen arteko segurtasun-tartea 1,5 metrokoa izan.

### Aire zabaleko erabilera publikoko parkeak eta kirol-eremuak

Haur-parkeak, kirol-eremuak, patinaje-pistak (skating) edo aire zabaleko erabilera publikoko antzeko espazioak jendearentzat irekita egon ahal izango dira, baldin eta horien azaleraren





espazio konputagarriko 4 metro koadroko pertsona bateko gehieneko edukiera errespetatzen bada.

Udalei dagokie espazioa antolatzea, bai eta garbitasun- eta higiene-baldintzak bermatzea ere.

### **Diskotekak eta gaueko aisialdiko gainerako establezimenduak**

Otsailaren 5eko 17/2019 Dekretuaren, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Legea garatzeko Erregelamendua onartzen duenaren, III. eta IV. multzoetan sailkatutako establezimenduak ixtea erabaki da, salbuetsi egiten dira beren jardura I. eta II. multzoetarako erregulazioaren arabera garatzen dutenak, eta dagokien udal-baimena badute.

## **INTERPRETAZIOAK ETA APLIKATZEKO IRIZPIDEAK**

### **Euskaditik kanpoko beste autonomia-erkidego batzuetara joan naiteke?**

Ez, soilik urriaren 25eko 926/2020 Errege Dekretuaren 6.1 artikuluan jasotako arrazoiren batengatik gertatzen denean (osasun-zentroetara joatea, lan-betebeharrak, hezkuntza-jarduerak, ohiko bizilekura itzultzea, besteak beste).

### **Bizi naizen udalerritik kanpo joan naiteke?**

Ez, EAETik irteteko salbuespen berberengatik salbu, nolana ere, **mugakide diren** eta ohiko igarobidea duten **udalerrien** arteko mugikortasuna baimentzen da, lurralde historikoa edozein dela ere, gizarte-, ekonomia- eta kirol-jarduerak edo aire zabaleko jardura fisikoak egiteko.

Era berean, salbuespenak aurreikusten dira kirolari profesionalentzat, erdi-profesionalentzat eta federatuentzat, bai eta kirol jardura zehatz batzuentzat ere (azkeneko kasu honetan, 100.000 biztanleko 500 baino gutxiagoko intzidentzia-tasa duten udalerrien artean).

### **Zer da mugakide diren udalerrien arteko jardura sozioekonomikoa?**

Jardura horiek mugakide diren udalerrien artean egin ohi dira, eta ez dira ezarritako salbuespenen artean sartzen, hala nola, supermerkatua, tindategira, jatetxera edo haurtzaindegira joatea, eta mugakide den udalerrian ohiko moduan egin daitezkeen harreman sozial eta/edo ekonomiko guztiak.

### **Nola jakin dezaket nire udalerriko edo beste udalerrri bateko intzidentzia-tasa metatua?**

Osasun Sailaren webgunean (<https://www.euskadi.eus>), astero, astelehenetan eta ostegunetan, Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendariaren ebazpen bat zabalduko da, udalerrriaren araberrako tasen zerrendarekin, eta erreferentzia eraginkorra izango da hurrengo egunetik aurrera.

### **Nola justifika dezaket joan-etorrien arrazoia?**

Beste frogabiderik ez dagoenean, erantzukizunpeko adierazpenaren egiaztatgiri bat eraman ahal izango da. Egiaztatgiri hori sinatutako dokumentu bat da, eta adierazten du dekretu



honetan ezarritako baldintzak betetzen dituela, mugikortasun-mugaren salbuespenak justifikatzeko.

**Zenbat lagun bildu gaitzke, 4 edo 6?**

Oro har, gehienez ere lau pertsona elkartu ahal izango dira, bizikideak badira salbu.

**Espetxeetara joateko aukera dago?**

Bai, baldin eta Espetxe Agintaritzak emandako baimena badu.

**Maskota atera dezaket 22:00etatik aurrera?**

Maskota ezin da paseatzera atera 22:00etatik aurrera eta 06:00ak arte. Salbuespenetan aurreikusita dauden jarduerak soilik egin daitezke eta, maskotei dagokienez, urgentziazko arrazoiengatik albaitaritza-zentrora eraman daitekela, edo sendagaiak, osasun-produktuak edo premia biziko beste ondasun batzuk erosteko lekualadatu daitekela zehazten du.

**Baimentzen al da arrazoi sindikalengatik, alderdi politikoen, enpresa-elkarte eta antzekoen lanagatik lekualdatzea?**

Bai. Jarduera instituzional edo profesionaltzat hartzen baita.

**Baimenduta al dago manifestazioetara joateko mugikortasuna?**

Irizpide orokor gisa, manifestazioa egiten den herrian edo mugakidean bizi diren pertsonak bakarrik joan litezke. Hala ere, manifestazioetan, elkarretaratzeetan edo kaleratzeengatik egindako protestetan, ordezkari sindikalak eta zuzenean kaltetutako langileak joan ahal izango dira.

**Euskadin sar al daitezke konfinatu gabe dauden Autonomia-Erkidegoetako turistak?**

Soilik sartu ahal izango dira legez ezarritako salbuespenak betetzen dituztenak, eta beste lurralde batera joateko bertatik igaro behar dutenak.

**Nola arautzen dira Euskadin kokatuta dauden eta barrendegiak diren udalerrien gaiak?**

Barrendegi diren udalerriek inguratzen dituen lurralde historikoko tratamendua jasoko dute (*Trebiñu, Villaverde....*).

**Ibilgailuaren IATA pasatu behar badut eta izapidea 22:00ak baino beranduago amaitzen badut, baimenduta al dago desplazamendua?**

Bai, eta bizilekura zuzenean joan behar da eta, betiere, egin den izapidea egiaztatzen duen agiria behar da.

**Baimenduta dago hiletetara joatea?**

Bai, intzidentzia-tasa edozein dela ere, betiere bigarren mailara arteko senide baten hileta bada.



### **Baimenduta al dago gurtza-lekura joatea (meskita) beste udalerrri batera, gure udalerrian bertan ez badago?**

Aurreko udal-mugikortasunaren murrizketan interpretatu zen bezala, erlijio-zerbitzuetara edo kultu-zerbitzuetara joateko aukera ematen da, baina salbuespen gisa, bizileku den udalerrian ez badago, eta beti gertuen dagoen lekura. Ez dago inolako muga kuantitatiborik, eta behar beste aldiz egin daitezke. Era berean, gurtza-zentroko batzordekideak, soldatapekoak izan ala ez, oratorioa dagoen udalerrian bizi ez badira, erregulartasunez joan daitezke irekitzera eta ixtera, garbitzera edo mantentzera.

### **Beste udalerrri batzuetara joan al daiteke ikastaroetara (hizkuntza-akademiak, euskaltegiak...)?**

Bai, baimenduta dago beste udalerrri batera joatea hezkontza eta prestakuntza jarduera arautuak zein arautu gabeak egiteko, bi udalerrietako intzidentzia-tasa metatua edozein dela ere. Hau da, euskaltegira edo ingeleseko edo musikako akademiara joateko joanetorriak baimentzen dira.

### **Baratzeetara joan daiteke?**

Bai, arrazoi hori dela-eta, baratzea dagoen udalerrira joan daiteke, azken hau mugakidea den ala ez kontuan hartu gabe, eta bi udalerrietan metatutako intzidentzia-tasa kontuan hartu gabe.

### **Kontsulta medikoetara beste pertsona bat lagundu daiteke?**

Bai, laguntzaile bat onartzen da.

### **Baimenduta al dago ehiztarien mugikortasuna uxaldiak egiteko?**

Foru-aldundiek zenbait agindu argitaratu zituzten, eta gaur egun ere indarrean daude. Agindu horien arabera, ehiza-jarduera jakin batzuk -zehazki basurde uxaldiak- baimenduta zeuden, populazioa kontrolatzeko osasun-beharretan oinarrituta.

Baimen horiek ehiztariak uxaldiak egitera mugitzea ahalbidetzen dituzte, "ezinbesteko" mugigarritasun salbuespenen barruan egongo lirakeelako.

### **Baimenduta al dago autonomia-erkidego desberdinetako udalerrri mugakideen arteko lekualdatzea?**

Ez, autonomía-erkidegoen arteko joan-etorrietarako aurreikusitako salbuespenetarako izan ezik.

### **EAEko JANren otsailaren 9ko ebazpena kontuan hartuta, berriz ireki daitezke joko- eta apustu-lokalak?**

Ez, Lehendakariaren 44/2020 Dekretuaren eranskinaren 9.1) atalaren indarraldira mugatzen da berrirekitzea. Atal horrek ostalaritzako lokalei soilik eragiten die eta, beraz, joko- eta apustu-lokalak ezin dira ireki. Ostalaritzako establezimenduetan, joko-makinak erabili ahal izango dira, baldin eta eserita egiten bada.



### **Nahitaezkoa al da ibilgailu pribatu batean maskara erabiltzea pertsona batek baino gehiagok bidaiatzen duenean?**

Bai, bizikidetzaren unitate bereko pertsonak direnean izan ezik.

### **Nahitaezkoa al da maskara janztean aire zabalean jardueraren fisiko eta kirola egiteko?**

Edozein kirol-jardueratan, **nahitaezkoa** izango da **maskara erabiltzea**. Eremu naturaletan, **hirigune periferikoetan (oinezkorik gabe), igerilekuetan, kanpoko espazioetan jardueraren fisiko handiko aparteko uneetan eta lehiaketetan soilik baimenduko da maskara ez erabiltzea.**

### **Zer da kirolari erdi-profesionala?**

Egutegi ofizialeko estatuko eta nazioarteko lehiaketetan parte hartzen duten kirolariak dira, baita dagokion Euskal Federazioak antolatutako maila goreneko lehiaketetan jarduten direnak ere, guztiak kategoria absolutuan. Atal honetan sartzen dira maila absolutu goreneko herri-kirol lehiaketak.

### **Txokoak, elkarte gastronomikoak eta lonjak, irekita egon al daitezke?**

Debekatuta dago txokoetan, elkarte gastronomikoetan, lonjetan eta antzekoetan inolako jarduerarik egitea, eta itxita egon beharko dute.

### **Eta kannabis-elkarteen lokalak?**

Ez, itxita egon behar dute.

### **Zer zerbitzu eman ditzakete ostalaritzako-establezimenduek eta jatetxeek?**

Aire zabaleko terrazetan zerbitzuak eskaini ahal izango dituzte, eta barruan ehuneko berrogeita hamarreko edukiera mugatua izango dute. Nolanahi ere, mahai desberdinetako aulkien artean gutxienez metro eta erdiko pertsonen arteko distantzia dagoela ziurtatu beharko da.

### **Zer ordutegi dute ostalaritzako eta jatetxeetako establezimenduek?**

06:00etan ireki ahal izango dute, eta 20:00etan itxi beharko dute.

### **Janari-eskaerak jaso eta banatu al daitezke ostalaritza-establezimenduetan?**

Bai, bizi den udalerrian edo mugakidean, itzidentzia-tasa edozein dela ere, 21:00ak arte eta bertan jasotzeko aurretik hitzordua hartuta.

22:00ak arte etxez etxeko banaketa baino ezin da egin.

### **Zer ordutegi dago baimenduta zerbitzuguneetan dauden ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzuetarako?**

Irekita egon ahal izango dira ezarritako berezko araubidearen arabera, baina 20:00etatik 06:00etara iragaitzazko erabiltzaileentzat bakarrik.



### **Nola banatzen dira erabiltzaileak ostalaritza-establezimenduetako mahaietan?**

Mahai bakoitzeko bezero-taldeek ezin izango dute sei baino gehiago izan. Lau lagunentzako mahai prestatuetan lau bezero bakarrik bildu ahal izango dira, eta bi mahai batu ahal izango dira gehienez lau laguneko talde baterako.

### **Nola kontsumitzen da ostalaritza-establezimenduetan?**

Barran edo zutik kontsumitzea debekatuta dago barruan zein kanpoan, eta erabiltzaileek mahaietan eserita kontsumitu beharko dute. Berariaz gomendatzen da establezimendu horietako terrazetan eta inguruetan ez erretzea; nolana ere, gutxienez bi metroko pertsonarteko distantzia gorde beharko da.

**Maskara erabiltzea nahitaezkoa izango da etengabe, elikagaiak edo edariak hartzeko unean izan ezik.**

### **Baimenduta al dago ehiza-jarduera, bai eta ibaiko eta itsasoko arrantza, kirol-arrantza eta jolas-arrantza ere, modalitate guztietan?**

Bai, bizi den udalerrian eta udalerrri mugakidean.

Nolana ere, beti errespetatu behar da pertsonen arteko 1,5 metroko segurtasun-distantzia, eta nahitaezkoa da maskara erabiltzea.

